

TALLERES GALLARRETA LANTEGIAK S.L. erakundeari emandako mandatua

Gaurko egunez, Alkate jaunak, Idazkaria naizen honen aurrean, honako dekretu hau eman du

75/18 DEKRETUA.- TALLERES GALLARRETA LANTEGIAK, S.L.ri kudeaketa-mandatu bat emateko ireki den OYS-171/2018 espedientearen berri eman ondoren .

Bat etorritz Udal Arkitekto Teknikariak 2018ko martxoaren 12an egindako proposamenarekin.

Krediturik badagoela esanez Kontu-hartzaitzak egindako ziurtagiria dagoelarik. Legeak ematen dizkidan eskumenak erabiliz, honako hau

EBATZI DUT

LEHENENGOA.- Mandatua ematea TALLERES GALLARRETA LANTEGIAK, S.L.ri, baliabide propio den aldetik, espedientearen jasota dagoen Udal Arkitekto Teknikoaren txostenaren I. eranskinean zerrendatzen diren espazio libre eta berdeguneetan, bideetan eta landa-bideetan, umeentzako parkeetan, gune narriatuetan eta paisaia aldetik interes berezia dutenetan garbiketa, kontserbazio eta mantenimenduko ingurumen-zerbitzuak eman ditzala.

BIGARRENA.- Kudeaketaren mandatuak ez dakar eskumenaren titulartasunaren lagapena, ezta eskumenaren erabilerak dauzkan elementu garrantzitsuen lagapena ere, Udalaren ardura izango delarik mandatuari babesa ematen dioten izaera juridikoko egintza edo ebazpenak ematea edo haren jarduera material zehatza osatzen dutenak.

HIRUGARRENA.- Kudeaketa-mandatuaren indarraldia urte betekoa izango da, baina epea amaitu eta gero, 3 urtez luzatu egin daiteke, bi aldeek ados badaude. Urteko prezioa 60.500,00 eurotan finkatuko da, hilean 5.041,66 euro ordainduko direlarik.

LAUGARRENA.- Kudeaketa-mandatu hau Valle de Trápaga-Trapagarango Udala eta Talleres Gallarreta Lantegiak, S.L.ren arteko berariazko akordioaren bidez formalizatuko da.

BOSGARRENA.- Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Udalaren webgunean argitaratzea formalizazio-tresna eta ebazpena, Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11.3.a) artikulua lehenez paragrafoan eta abenduaren 9ko Gardentasuneko, Informazio Publikoa eskuratzeko eta Gobernu Oheko 19/2013 Legearen 8.1.b) artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Valle de Trápaga-Trapaganen, bi mila eta hemezortziko martxoaren hogeita
bian.

ALKATEA

Nire aurrean
IDAZKARIA